



ETXEBARRI

ANTEIGLESIA DE SAN ESTEBAN-ETXEBARRI DONEZTEBEKO ELIZATEA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Urdinean haretx bat berezko kolorean zelai berdean, eta bi otso zuhaitzera igonda zutunik, eta adaburua gurutze gorri batez kargatua.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO


En campo de azur, un roble de su color, terrasado de sinople, con dos lobos empinados al tronco, y su copa cargada con una cruz de gules.

AITAMEN HISTORIKOA

Uribeko merindadeko eleizatea. Erdi Arokoak dira Etxebarri oinetxea –hortik jatorri izena eleizateari– eta Legizamon oinetxea. Azken horretan jaiotakoa zan Pedro de Legizamon kapitaina, 1319an Granadako ibarrean hil zana; hantxe bertan hil ziran Juan eta Pedro infanteak.

Frantziaren eta Espainiaren arteko gerra zala-eta Felipe IV.ak tropak eskatu eutsazan Bizkaiko Jaureriari, eta 1637an Jaureriak mila gizonen tertzioa osatu eban. Hori dala eta, Bizkaiko herri guztietatik joan ziran soldaduak eta Etxebarritik, hain zuzen be, bi joan ziran.

Gerra hori zala-eta 1639ko apirilaren 20an Bizkaiko Jaureriari erabaki batzuk hartu ziran, eta frantsesen ontziek eraso ezkeru armak eukiezan gizonen zein portutara edo kostako zein tokitara joan behar eben zehaztu zan, besteak beste; banaketa horretan Etxebarriko gizonen, Nerbioi arroko ganerako gizon gehien bezelaxe, Portugalete zaintzea egokitu jakien.



RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia perteneciente a la merindad de Uribe. De la Edad Media datan las casas solares de Etxebarri, que dio nombre a la anteiglesia, y Leguizamón. De esta última descende el capitán

Pedro de Leguizamón, muerto en 1319 en la vega de Granada junto a los infantes don Juan y don Pedro.


En el año 1637, ante la petición de tropas que el rey Felipe IV había realizado al Señorío de Bizkaia con destino a la guerra que en esta época mantenían Francia y España, el señorío procedió a la formación de un tercio propio de mil hombres. Con este fin se efectuó un repartimiento de soldados entre todas las localidades vizcainas, aportando Etxebarri dos soldados.

El Señorío de Bizkaia acordó el 20 de abril de 1639, entre otras medidas preventivas,

designar a qué puertos y partes de la costa debía acudir la gente armada del interior del Señorío en caso de ataque contra la costa por parte de navas francesas. A los hombres armados de Etxebarri, así como a los de la mayor parte de las localidades de la cuenca del Nervión, les correspondió socorrer en caso de alarma a Portugalete.

IKURRIÑA

Deskribapena: karmin kolorekoa eta erdian armarría.



BANDERA

Descripción: de color carmesí, lleva el escudo en el centro.